Erref. kodea: LAF-217-189 [2]

Izenburua: Kazetagintza lanetan, *Herria* aldizkarirako jasotako bertsoak: C-G

Bertsoak: Lurre: C-G

Chèvre

Luhusoko «Gora Herria» deithu
batasuneko plekarien ohore,
1947an-1948an eta 1949an atheratu
baitura trinketeko chapeldun.

Airea.— Lili bat ikhusi dut baratze batean.

1

Herri aiphatua da Lapurdin Luhuso:
Ardura da jendea hartaz gora mintzo;
Han diren plekariek begi eta beso;
Atsegin egoitea baztertik heyer so.

2

Martin Vigneau-rekilan Elisselchen Chimun
Hiru urthez segidan athera chapeldun:
Holako plekariak arraroak egun;
Zahar eta gaztiek ohora dibzagun.

3

Hiru urthe hoyetan ez daite sinhetsi
Zombat pleka partida duten irabazi!
Hogoi'ta hemezortzi aldiz bethi nausi:
Hola egin dutenak nun ditazke kausi?

4

Martin saketik eta Chimun aldiz joyka,
Kintzea egin arte ezin aise barkha:
Horrela bermatuik jeinuz'ta indarka,
Kopa eder bat ukhan, bitorien marka.

5

Kopa eder hori da — zilharrez egina,
Merechitu bezala — saritzat emana:
Bethikotz horren jabe — duzu Catasuna.
« Gora Herria » chuchen aise — du bere izena!

6

Luhusoarra azkar — agertzen plazetan,
Erinket ala kanpoan, — lehen guzietan:
Etsenplu har bezate — bertze herrietan,
Eskualdunek jokoak — bethi iraun dezan.

7

Hiru urthez izanik — hoinbertze atsegin,
Gerоaren aiduru — egon gaiten bardin!
Bihotzetik kantatuz — coz kariorekin:
Biba « Gora Herria » — Chimun eta Martin.

Chêtre.

DIBARRART, Pierre

'Eskual Herria eta Eskuara'

[Herria-reko]

LAF-217-189 [2]

Eskual Herria eta Eskuara:
I. Frantzian et Espainian

... Eskualdunen arteko

XI

Ait'etama zoro batzu irriz dende haurreri
Eskuara hiz nahasiak erraiten tuztenari
Bainan burhaso zuhurra egun guzi har bedi
Chuchenaren erakusten makhuz mintzo denari.

XII

Mende Zaharreko ama oi Eskuara maitea
Kaskoin hoien kolpetarik baduzu oinhazea
Aurdiki nahi zaituzte eta khendu bizia
Bainan Eskualdunak zor du chutik atchikitzea

Pierre Dibarrart.

Duny-Pétré, Pierre

"Piarres Héguitua"

I943-ko SASI-GUDARIERI

Alemanekin ados ez baitzen,
Gerlan sarturik hogoi urtetan,
Gauaz zabilan etsaien hiltzen,
Gurekin zagon mendi leizetan.
Soldado berdek kolpatu zuten,
Tiroka hasiz ilhun beltzean.
Oihu bat gabe leherrin zuen
Giza-gaixoa, malda gainean.
Haren izenaz nor da orhoitzen ?
Etzen izarrik bere besotan !..

Tiro zapartak bazirelarik,
Bai eta zonbait lagun ikaran
Ezin jalgituz gudu tokitik,
Zer ikusten zen ordu berean ?
Gure nausia, harma harturik,
Irri bat ekin bera barrandan,
Eta gu, gero, haren ondotik...
Ezti-eztia, bonben erdian
Manatzen zuen, egonez xutik :
Etzen izarrik bere besotan !..

+

Bilakatu zen aintzindaria,
Izanik trebe sasi-guduan.
Oroz gainetik, zoin perestia
Ageri zaukun zorigaitzetan !
Maite ginuen haren irria,
Eta bihotza zuen eskuan.
Batzutan, utziz bere ogia,
Gosetiari beharrez eman,
Jan gabe zoan egun guzia :
Etzen izarrik bere besotan !..

+

Aintzindaria zauku suntsitu.
Ixilik hil da sasu batean.
Haren ahoak ez du salatu
Nuntik heldu zen, norat zabilan...
Zer gerta ere, dugu landatu
Kurutze txar bat hobi lurrean.
Othoi Jinkoa, behar da sartu
Arima hori zure zeruan,
Zeren,debrurik ez balinbadu,
Etzen izarrik bere besotan !..

IGORTZE

Printze bat zira, Jaun Jenerala.
Bada langile zure menpean.
Gureak, lehen, etziren hola,
Karlixten gudu harrigarrian.
Hik, Tío Tomás, egin duk gerla (I)
Xapel gorrien leku gaixtoan.
Hantxet hila hiz, bestek bezala :
Etzen izarrik hire besotan !..

I/2/I967

Piarres HÉGUITOA

(I) - "TÍO TOMÁS" - Tomás ZUMALACARREGUY Jeneralaren izen-goitia.

Elizalde

'Ainhoarra'

[Chalies, Gratien]

Lehen Kopla

Zozi gaitzesko égun batez sorteak hazemanik
Nere lurraso zahartuak nigaretan utziriK
Soldado nintzela baska harnetan jariaturik
Ninduten urrun igorri urrun Eskual herritik

Laster ninduten igorri Afrikaren barnera
Han urte han egon eta deitu Italiara
Leku orotarik beti hegaletkin besala
Sogua zaitan ziratzen arin Eskual herrira

Eskualdunen omenari nik ez dirot eguin uko
Nere sabre baionnetak maiz essarri lekuko
Solferinon kolpaturik zoten guehiago
Ez ninzala ez segurki ni Eskual herriako.

Italiako lurrean sartuz geroz Frantsesak
Oi nolako sarraskiak oi zer guizon galtzeak
Odol hibaiez dirade han gorritu basterrak
Holakorik ez dezala ikhus Eskual herriak

Burhaso gaicho hoitarik semeac galdurikan
Zenbatak ez dire yarri aukenik minenetan
Sure jainko zerukoak hoin bihotz min handitan
Bera gaitzala erortzetik guziz Eskual herrian

Atsulaiko biskarrean ainhoako kapera
Han du ene ama onak othoitz eguin ardera
Aigerren Erreginak bida haiben etchera
Nizvirik eta osorik ekar Eskual herrira

(Suite)

Nere ama entzun dezu oi Andre amultsua
Azken hatserat nindagon yadanik hurbildua
Zuri esker baitzen ez dut nik bixatu bizia
Zuri esker ikhusi dut berriz Eskual Herria

Mundarraingo mendi hori bethi kopeta gora
Ikhusteak ophisten dirau bihotzean pilpira
Italiako lurretik eri nintzan athera
Bainan sendatu heltzean Eskual Herrira

Iruskuak iraganik trankil orai etchean
Hauche diot Jainkoari galdetzen azkenean
Bizi nadin hanitz urthez aitamekin batean
Nere egunak higatuz Eskual-Herri maitean -

Signé : Elissalde Amhoarra -

Bayonne 26 Mai 1952.

Cher So Egilé maitea,

C'est avec grand plaisir et vif intérêt que j'ai lu votre lettre du 28 avril dernier.
Hélas ! une infime minorité seule pratique et pratiquera toujours la vraie charité. C'est si commode de se confiner dans un égoïsme confortable...
J'ai passé 33 ans de mon existence outre-Mer, dont 18 avec ma chère épouse et partout où nous avons séjourné nous nous sommes efforcés de soulager les misères - Aujourd'hui nous sommes nous-mêmes cruellement frappés physiquement. Je suis amputé d'une partie de ma jambe droite et ma pauvre femme est complètement paralysée. Nous ne récriminons pas cependant, et elle 73 ans, moi 76 nous attendons paisiblement que Dieu nous rappelle à lui.

En attendant, c'est toujours avec plaisir que je lirai les articles de So Egilea. Veuillez agréer cher Monsieur Etchalbarry l'expression de mes meilleurs sentiments. [signature] [illegible] Bayonne

Erkiaga, Eusebio

Piarres adiskideari

Soinez urrun nago, bainan
hurbilago gogoz,
adiskide bertsu batzuk
burutzeko asmoz;
aspaldi ikusi zintudan
nik lehebizikoz,
ikusi nahi zintuzket
urte anitzekoz.

Noizbait zinen antzinatu
euskal-bideetan
bai punttakoz ta bai mintzoz
amaren hizketan;
hor ari izan zaitugu
urte luzeetan,
orobat buru-lanetaz
lerro zenbaitetan.

Bi amodio dituzu,
Jinkoa lehenik,
fedearekiko lanei
zeharo emanik;
galdu duena dabila
ote den Jinkorik,
bakoitza bederak daki
zer duen minenik.

Bigarren amodioan
euskara zuk gailen,
manexak ba du oraino
bihotz eta kemen,
mintzaikari eta idazle
nehoiz ez atseden,
"apez gorri" hitz urruak
ez zaitu sumintzen.

Ingurukoen txaloa,
Piarres lankide,
atsegingarri omen da
badu zuzenbide;
herri maitetasunean
guztiok ahaide,
zaitez, egungo bilkuran
zorion hartzale.

(Eusebio Erkiaga)

Baigorrirat,
1977-X-22.

Piarres Adiakideari

Soinez urrun nago, baiman
hurbilago sogoa.
adiakide bertan batzuk
bizitzeko zamoa;
zuparik ikusi zintudan
nik lehenbizikoz.
ikusi nahi zintuzket
urte askotxoz.

Hoizbait zinen antzinatu
euskal-bideetan
bai puttikoz ta bai mintzoz
amaren hizkeran;
hor ari izan zaitugu
urte luzeetan,
orobat hura-lanetaz
lerro zenbaitetan.

Bi amodio dituzu,
Jinkoa lehenik,
federalkio lanet
zaharro emanik;
galdu duena dakila
ote den Jinkorik,
bakoitza bederak daki
zer duen minenik.

Pizarren amodioan
euskara zuk gailen,
manexak ba du oraino
bihotza eta kemen,
mintzairari eta idazle
nahoia ez atzeden,
"apez gorri" hitz urrunak
ez zaitu aumintzen.

Jaunzuloen txalopa,
Piarres Lafitte,
atsegingarri omen da
bada zuzenbide:
herri maitetasunean
gurtiok abaide,
zaitez, egunko bilkuran
zorion hurtzale.

(Buscbio Arkizpa)

Baigorrian,
1922-X-22.

imon
S. Ewramuzpei

Eskualdun Astekariari
Aires: Kitarra txarcho bat

1

Eskualdun txakur-gai, Astekariari,
Zombait bitz nahi dazkot pertsukan ezarri;
Aitta etzaio ensan ene xh-alari,
Ez banintz ausodioz lotua lanari.

2

Herro-gaitza bortz urthe baduzu s-orturik;
Izen bat ere duzu ederrenetarik;
Kasketik haur thumo bat bezala egonik,
Ensekigno, haundituz jarri azkarturik

3

Kasketik eta gero, gaicho Eskualduna,
Etsai hainitz bideau hatzemaun duzuna:
Beldurrik gabe doha bethi bihotzduna,
Trabaz achola gabe bideau aitzina.

4

Astekari maiteak, gure herrietan,
Badu bait begitarte igand'egunetan,
Trostunak artoski bospasei pleguetan,
Etcherat baderama bizkario etan.

5

Chabal chabala, mahain gaineau emanik,
Gazteak pilotako saileau zadanik,
Neskatak merkatukoak jakis nahiznik,
Bakotchak bere chari gostu du leheniik.

6

Bertzeak bezperetan, chaharrak etcheau,
Hek urakurtzen dute gostuz atsaldeau;
Afal ondoan berriz, aitak arratzeau,
Bi hirii aldiz berolin guziek asteau.

7

Irakurgai onak du gogoa ahaintzen,
Eta gorichtoak aldiz bihotzak usteltzen;
Eskual herria duzu chutik atchikitzen.
Haaskoinek neurrirat eror ez gaitzezen.

8

Amerikuetan zauden herritar unsea,
Dorpe da atz-herrian bakar bizitzea;
Ez dezazun ahantzi zure sor etchea
Irakur astekari Eskualdun maitea!

9

Halere, gut'arteau badire orainO -
-Burchuo othe diren dudatua nago-
Deus ezin konprenitu, nik bainO geiago,
Eskualdun az osto bat... dute nabiago!

10

Etcheverri, Abadie, Iriart-Urruty,
Egun hobietarik bazinezte chuti,
Inon zinezakete guzier gorabi:
"Guk hasi dugun lana badiak ederki!"

11

Eskualduna, zaun haiek egin zutenian,
Hargin beltzak nahiko zure eskualdean,
Han hemenka hasiak zerbait ilunpean,
Zuk trabatu zituzu berex lan honrean

12

Orai arte bezala, zuk gaitzazu lagun,
Hargin beltzak gutarik egon diten urrun,
Izan gaiten bizian "eskualdun fededun"
Eterna saritako merezi dezagun!

I. Iruamendi

Astekari Eskualduna.
Airea: Nork eder bat.

1

Bi hogei eta hortz urthe ditu zarri zuzkela chutik,
Abbadie rekin, jaun Etcheverrik eta Iriart-Urrutik;
Geroztik hunat, heien chederi chuchen jarraiki zarena,
Ez nauke zutaz mintzatu gabe: Astekari Eskualduna.

2.

Harroka muthur baten puntatik, nola arrano kumea
Hegalak chabal airatzen baita, nahiz orainO chumea.
Behatuz hazter guziet arat, zalhu dohza hegalduna:
Gisa berean abiatu zen: Astekari Eskualduna

3

Ongi egile guzien lana, da bethi hastiatua,
Heien ondotik laster dabila etsai errabiatua:
Bere hitzetan eta obretan baitzen irakur-gai ona,
Lortzetik zuen begitan hartu: Astekari Eskualduna

4

Arranoari, hiru belatcha oldarrean ziren lotu,
Nahiz eskualdun hortuetarik hegaztin hori haizatu;
Guduan erech bere kolpetan, ageri da bihotz duna:
Hiru etsaier nagusitu zen: Astekari Eskualduna

5

Alma zamurrak bere haurretaz dauka arthA berezia:
Gerla denboran dolu minetan zen Eskual-Herri guzia.
Ait'arna chahar, emazteki en, ume churtchen bihotz mina,
Zure hitz onez arindu duzu: Astekari Eskualduna.

6

Berriki dute zure zainetan odol berri bat ezarri
Nahiz ez zinen orai artean indarrez ttipitzen ari
Hedatuz zoh-an hedoiak barna, arranoarenomena.
Behin bethikotz gaztetu zare: Astekari Eskualduna

7

Eskualdun seme odól garbiak, dagon eskualde guzitan,
Dela Parisen, dela Madrilen, orobat Ameriquetan,
Zure baitan du kausitzen, segur, bakar denean laguna:
Zeren harentzat baitzare bethi: Astekari Eskualduna.

8

Orai artino atchiki duzu gure Herrian eskuara,
Zu joanez geroz akabo daite, moiteño mintzaira.
Leanoz gorderik, beltz kausitzen dut guretzat ethorkizuna
Agian luzaz biziko zare: Astekaril Eskualduna

S. Irramouspe

1°) Hoin belatcha horiek: Le Réveil Basque; Eskual-Herria; Argizalea.

Errangora

Airea:" Aire chahar batean hasten naiz kantatzen,
Neure pentsamenduen deneri kondatzen".

----- ORTZANEKO URMAELA -----

1

Napoleon'ta Louis Hamalaugarena,
Dira Semperendako fama oberena.
Gizon handienentzat, lanketa ederrena,
Herri buruzagiak daukula egina,
Urmaela, Ortzan'go erreka bat zena.

2

Gizon egitateak, beti du lurrean,
Aldekoa erdian, etzai bazterrean.
Ez ditake bertzela Sempereko aldean,
Guda baita hasia Camiren herrian,
Iratzleku'ta urmaelaren gainian.

3

Iratzlekua zer da? Iratz-tokia;
Ez etsaiek bezala, lurraren nausia.
Hitz aski garbi horrek, kataska du hasia,
Baitu gende gusia dena nahasia;
Urrun gaki baita,Ortzan'go erasia.

4

Yazartzaille burua zauku ezarria,
Gizon adinekoa, ilea churia.
Sehaska ahantzia, urbilchko illarria.
Horrek baitu gehiena ebatsi herria
Hortako egina da etsai'aintzindaria.

5

Adinak ez baitio ikasi zuurtzia:
Iduri ez hilkora, joiaki du bizia.
Ez jakin nundik heldu eta norat joiatea,
Sortzea bezala da guretzat hiltzea,
Deuz gabe etortzea emen denen uztea.

6

Gauza illungarria, horrekin emana,
Urmaelaren etsai, Jinkoaren artzaina.
Holakoak ez luke, artu behar ixkina.
Izan dadien ona edo gachtagina,
Orduan du ematen galbide zikina.

7

Lurrari ustez baita hainitz atchikia,
Artzain hunek ote du zeruko argia?
Alde artze hunek du ondorio andia.
Bakotchak behar baitu ikusi egia
Eta ez itchuratu beti lehen ardia.

8

Ezin uka izena" Jaun Mahastaria";
Beharko duzu izan ordaina zaria.
Ez baituzu ba galtzen urmaelan ongia,
Orai emanen duzu zure'loretegia,
Egiteko Semperen, berebil-tokia.

9

Beldurez ikustea denek biluz gorri,
Dira bederen zombit, etsaia ezarri.
Lore baten aldean direlakotz lazgarri,
Etzinukete nahi, urmaelan ikusi,
Annabellaren ondoan norbit itsusi.

10

Dituztelakotz isterrak sobera lodi,
Seren baitire dena tripa'ta ipurdi,
Urmaela pollitak egin dezake gaindi;
Errotazainak luke behar dena busti,
Ta joan Urda ta Churiz, Zaldubia gain beiti.

11

Bertzek eran dezaten, abestuz nahia,
Utzirik bazterrerat duten erabia;
Emen utziko dugu lardaskatu'izaldia,
Emateko etsaieri beren izulia;
Beti mintzatzen denak beti du egia.

xxx ERRANGORA xxx



Etxahun Irurikoa

Etxaun Irun

Etchahouni orhitzapen bat

I

Chothu giren guziek zor dugu hiltzia. →
Zihaourtan ez dugia, hotchek exemplia
~~Bena~~ hain beyta bizi orano Zouré ichtoria
Zenthurik ziela ez zaiku, aiya chinkestia.

II

Izar gachtouan pian. Zu zinen chorthurik
Zouré aita eta amaz, gaichki maithaturik
Affectioné mentchian. géro handiturik
Trichterik bazabilzan. ocho heraturik.

III

Irimu handia bena, bardin misèraoublé
Ounbarzunari ez zunin, echkérik batéré
Umil behar ordietan, bechtian trufalé
Urguillurik ez zunin, bena bai fiertaké

IIII

Léhen amodiotik gachki phartiturik
(Judio heratubat) Zu zinen gèrostik
Gaiaz bidajazalé, égunaz gordérik
azkènekoz hil zinen, dénez huguntürik.

V

aharqo eta khambillou, bi mendi fiéréñak
Etchérik hullantchago, Marie Maidaléna
Sofritu dutuzié Etchahounen phénak
Horen kokineriak. horen hasperénak

VI

(Déjaik ehun bat ourthe, itzali ziéla!)
Zouré ondotik éré, espousa infidéla
Chinketch zazu Barkoché, khambiatu déla
~~Orai~~ aiphaturik da, héribat modéla

VII

Gastellondon nechkatchak, dirade zuhurak
Ez dirade jouraiten, haboro érétzurat
Montoriésen ondotik, utzik Barkochtarak
(Biarnések halas diré, hazkatzen chudura;

VIII

Ez da ez Marie Solik habaro héri kountan
Espousatzen dirade', hogey bat ourtheitan
Barkocheko lureitan, edo héri éitan
Ezin éginez dienak, charlzen Komentéitan

VIII

Ez da nikour jouraiten, orai Zoumarat
Pellegri aita saintiaren, ikhouchteia
Laket da bidajatzen, badoua ber béra
Arima dolorousen, béne dikatzéra

IX

Hegiaphalia duzu, bethi ber lekhian.
Béna han bizi dienak, orai dira galant
Ezinago agudo, kounestak, ikéant
Akortin zinantéké', orai kayékilan.

XI

Barkocheko elizan, ez da éran bekar.
Bada toiléta ederik, Zoumbait aropa lekar
Horé gatik noun nahi, aija leytéké jar
aspaldin éretora, beyta khiberoutar.

XII

Jeiki ahal bazinté, horien jujatzeko
Barkoché béri kounen, palaminatzeko
Ikhouch zintioké hében, héritarak oro
Ez Zouri madikionez, (béna belharikoi!)

XIII

Zaoudé la édérian Zu zieta medio
Barkocheri badeogu, kaboro amodio.
Eranen dereyzugu, ha bériz artio
Josejateko chokoun, ikhouchi artio

Etchahoun

10 août 1569

Etxahun-Iruri : Kiré Zerbutchuko airé (Agur adichkidia.)

Iratzéder
Gizon hotch, izen eder
Iratzéder.

I

Na hiz, ta nun biz hiz, gaizo Iratzéder
Eni égin Khantoren, déreyat mila esker
Khausitu dialakos, éné etcharier.
Hanturik hiz, hargatik, ez ha fiala bé'ker
Damurik ~~bé~~ hutuké', nitarik bi Pater.

II

Bai Khantan banabilak, hanitchko fcié'tan
Hiré despit menturas, 3oin nahi bdétan
Eta hi artzain-hora, éné astalé'tan.
Hachitu hayé'lakos, hazi hiz tchampakan
To mezura 3okhobat, ichil hadin bertan.

III

Chibéroutarak dantzan, ni Khantan harien artin
Khumita hindioket, fibéra gouré'kin.
Béna hariturik hiz, igoïten ilhumpin
Ikhousten gutianian, yaouskan sankoua arbira
Zotchas fhaoucha dizagun, hiré gibel aldin.

IIII

Hiroe doréak gutu, bildu élizarat.
Bortcha ka Khantuz hachi, eskualdun zuntzerak.
Éné aiéaré'kin, nin douan zé'lié'tarat.
Ez banu bidéan partu, artzain-ho zahara.
Zé'thi goraita bé'hiz, gaizo. Jé'loskora.

V

Hogey bat ourthé' hountan, ari nuk pertoutzen
Ménez, maitez, érabias, ez nukin ouste ukhen
Éné' zukharak ez fik, eskual hurik hoster.
Hargatik hil zeigniak, ditiat thirartzen
Hiré Kaskoin bihotza, bé'hatus hé'datzen

VII

Damarik ez bé'haïqu, lagun plaze'tako
Iné gau-itzalarin, argi é'gité'ko
Pentchu diat bardin harien, ountsa phakatuko
Eta Kaskoïn chapelbat, propi érozi'ko
Bé'hari luzé' horien, jender gorsatze'ko.

VII

Jakin dukédanian, hiré historia.
Zentuz nahi déreyat, bérik khantoria.
Ez dizayala etsit, hau duk hatcharia.
Artéan kontzerba ézak, lodi garkhotchia
Bardin ez dakik zer den, Ekuial gi'haria

VIII

Aren bériz artino, Mussé Iratze'der
Goraintziat nik ké'chi, hiré hachizaler.
Ez bidé hortan ezka, kouri hadi haster.
Ez bé'gien bistalat, bé'khau baïzik ager
Phastarik ez usté'ko, hiré hachizaler.

Erlh

Etxamendi, Jean

PILATUS eta PIARRES-ttiki

1

Eztai ederrak Eskual-Herrian
Egin ditugu ihauterian,
Bozkariorik haundienian !
Bai, ahaideak gutaratzean
Adichkidekin bat egitean
Zoriona zen gure artean.

2

Nahiz ez ginen haundietarik,
Espos-tekien bi aldetarik
Ginen eskualdun garbietarik;
Jakintsun haundi jaun hiritarrik
Zaiku ethorri batto bakharrik,
Itzultzekotan gu choraturik.

3

Jakintsun haren jakitatea
Da khorodunen laidostatzea,
Jainkoa baithan ez sinhestea;
Mundua eta gu egitea,
Ez deusetarik gauzen hastea,
Haren ustean da suertea !

4

Erran du: ez da botheretsurik
Gizona baino goragokorik,
Guri gaztigu eman dironik;
Ez da zorigaitz ez zorionik,
Ez arimarik berechten denik,
Denak akhabo hilez geroztik.

5

Zuhurren gisa mintzatu baitzen,
Gazte choroek sinhesten zuten,
Ustez osoki argitua zen.
Ez zen ez gaizki irriz asetzen,
Haren gezurra ez zela galtzen,
Toki onean zuela saltzen.

6

Mendi gaineko Piarres-ttiki
Lotsari gabe zitzaion jeiki;
Ichil zaite hor : ez mintza gaizki;
Arras zorotzat gauzkatzu naski;
Jakintsun zare, bainan ez aski;
Tontoak ere zerbait badaki.

7

Nungo gizonak deraut erranen
Jairik gabe du lana eginen,
Deus erain gabe sor arazi ren ?
Hastapenean hazirik ez zen;
Ez deusetarik nork erain ~~zen/e~~ zuen ?
Ikhusazu hor Jainkoa baden..

8
Begira zazu, iguzki horri,
Arratsetako ilhargiari,
Gau izarratu garbienari :
Zoin jakintsunek ditu ezarri ?
Jarraik-arazten tenoreari ?
Hots erradazu : nor da gidari ?

9
Jaun haundi hori ari zen khantuz
Bizarra eskuz bihurdikatuz,
Gehiago deus ezin asmatuz;
Behin errana gero ukhatuz
Bere burua ezin garbituz
Hura zen hura tonto Pilatus !

10
Pilatus harek badu bai lagun,
Mila batean sei-zazpi ehun...
Hek utz ditzagun ahalaz urrun
Kantabre Kasta, gauden fededun.
Jainkoa othoitz gau eta egun,
Gero zerua goza dezagun.

-:-:-:-:-:-:-

1/...

J. Etchemendy

PARISETIK.

Hoztar - Donaduak.

Airea: ttipi - ttipitik ait. eta Amak.

1º/

Hozta herriaz, mintzatu gabe, ez bainaike pasa egun,
Bozka berriak izan dira, ta, parerik ezuten nehun:
Bi gizon propi, agertu dira, ta famak hedatu urrun...
Bi donado zahar tonto dira "Domingo eta Battittun".

2º/

Battitta eta Domingo beraz, zuer mila laudorio!
Sujet pollit bat hasterat noa, zuek zaiztela medio.
Igande batez, bi jaun horiek egina zuten pario,
Hoztako konseiluan sartzeko, zoin othe zaiken hobio.

3º/

Bakotcha bere zortheaz uros eta berdin alegera,
Laster erresatu zuten biek, bedera mila libera:
Achuantqua, ezuten aiphu, biek izan nahiz "Mera"
Gauzen arragnatzeko ahotza, juan zizaioten artera.

4º/

Alde batetik ala bertzetik, hantike baizen mohimendu,
Zioten presentatzen zirela, makurrak nahiz chuchendu.
Ez dakit obrak, nolako duzten, bainan baizuten talendu:
Ahotza ontsa baliatu da, bai etare sosa kendu.

5º/

Domingo bahiz, Battitta banuk, bota cheke ta larriak,
Hartiak zuzketen aintzinetik, beren moltsen izariak.
Diru-diru, desafiatuz, menditako ahariak.
Pariatu zuzten, nik ez dakit, han zonbaten baskariak.

6°)

Orai pertsu huntan, zuri nago, zu, adichkide Domingo
Lege berrien plana zinaukan, bai eta zerbait egingo.
Hoztar-gizoner, landa-araziz, zonbait mila mahats ondo
Zure lehen grigna hau zitaken, arnoa merka behingo.

7°)

Domingok arnoa merka eta kontentik zagon Battitta:
Bainan saindatu behar izan du, kantonierren politika;
Arnoz ase-ta, bide tzarretan ez baizitaken irriska
Hozta zolatik goiti derama, bide berria trebeska.

8°)

Nik ez dakit hau egia denez, Battitta eta Domingoz,
Bide berri hori egin dela, beharra ere zelakotz.
Bai eta berdin, igande oroz, karrusatzen zirelakotz,
Nun eta eremaiten baizuten, batek-bertzia konkoloch.

9°)

Donado zahar gatik, Battittak, hartzen baitu delibero,
Boz galdeka hasi zen emazter, gaichua, berman-bero
Batek-bertzia, ezin garhaituz, zer izain badare gero,
Ez nuen uste, Hoztan bazela, hoinbertze politikero!

10°)

Baten malurrak, bertzen bonhurra, egin baitu egundaino,
Aurthengo Hoztako bozka hotan, hau ikus daike oraino:
Biltzarrerikan, ez dute egin, juan gabe ostaturaino,
Zuek baino hobeki jali da, segurenikan "Martigno".

11°)

Ba ahal dukete hortz karraska, eta izerdi kopetan,
Hoinbertze diru eman onduan, ahotzari debaldetan:
Baskari galtze, moltsa tturrintze, ez erregreta bozketan
Ez balinbazizte pasature, ez segur enseguen faltan.

T.S.V.P.

12°)
Hoinbertze indar egin ondoan, Konseiluan sartu nahiz
Arras ichildu gabe, Battitta, erranen dezkeat bi hitz.
Galdua - galdu, beste bozketan, segur hire plazan banintz
Denak untsa áse diten irriz, presenta nindaitek berritz.

13°)
Bihotz-Chimiko hunik izan du, aurthen Hoztan Konseiluak.
Ta anhitzek tripako hertzetan eré zer koropiluak,
Buru-kasoilek ere zut-zuta, zuzten kaskotko biluak,
Hostapeneko bi okiluak, ez baiziren hain diluak...

14°)
Nehork ez ditzala gaizki hartu, othoi koblaka laiduak.
Hoztarrekin akort eginak tut, frankil bihotz ta goguak.
Pario hortan, saltsan baininzan, jakin dezala munduak.
Agur Battitta eta Domingo, bibá Hoztar Donaduak!

Jean Etchamendy.

Hita. Caffitte.

Ez uste izan amenguzko pertsu batzu direla. Ichtorio irri-eguingarri bat dá, Hoztan neronek ikusia.
Zuhaurek-ere, Hita Caffitte, badakizu arras untsa, eskualdun donado zahar horiek nolakoak diren, haste kotabat chorta bat edanez geroz. Berek lehen-lehenik, eta anhitz Hoztarrek gero, galdeguiña zautaten, zonbait koblaren emaitia. Bide berri ichtorio eta arrno ichtorio, denak egiak dira, eta inguruiña-hetako jendek axsa konprenituko dute. Baiian ez ditut nahi bezain pollitak eginak, ez ninzan aldartian duaikabe.
Eta orai, zure kasetan, bazindu ichkin bat hamendako, denak kontent egitazke. Horrela, Hita Caffitte, esker-mila aintzinetik eta

onhets-zkizu ene bihotzetikako sendimenduriK hoberenak.

Zuri leial dagon.

Jean Etchamendy.

118 rue de la Faisanderie.

Paris 16e.

Jean Etxamendi

"Linboetarik."

Hirea: Lili bat ikusi dut edo Bordachuri.

I

Wartchoz sortu loreak gaichua ardura
Aphirilez badaki zer den fanidura
Hiros - pollitenian, hor dena itchura
gazteriKan galtzeko, jin zinen mundura.

II

Kantua eder laike, hola lorez - lore
Bainan sujetaK ere, Kanbiatzen dire
Oraiko neskatchetan, lili hoien pare
Zorigaitzez oraino, zonbait badirare.

III

Izigarrikeria, aurthen LeKunberryn
gerthatu izan dela, hauche dugu yakin
Hur handian ithorik, aingeru bat da jin
Bainan gertha zaiteken hoi Ahatsan berdin

IV

Ene lehen orena, hau zen mundu huntan
Ogi zakuer Kontra, ganerreko bortan
Zorigaitza han zagon leku trichte hartan
Amaren laguntzale, Yfernuko Satan.

V

Ama, norat eta zer, zira bilhaKatu
Ene lehen garina, ezia aditu
Nahio izan nuzu, trichteki urkhatu
Aita gorde delakotz, zuK ere ukatu

T.S.V.P.

VI

Zerk pusatu zaitu zu, ama dohakabe
Ezintazkena pasa, lan hori in gabe
Ezinen ez lehena, bachtart baten jabe
Ene gatik oraino, bazinuken galde.

VII

Deithoragarria da egin duzun lana
Onhetsi behar baita, jinkoak emana
Zonbait amentzat daike, hoi ezin jasana
Zuk hurerat bota-ta, hek ezin izana.

VIII

Ama izanen duzu, anhitz arrangura
Jin beharra bainizan zuzenki mundura.
Eternitateko dut orai ilhundura.
Batheiorikan gabe ezin sar zerura.

IX

Limboak ahal bazu, ama Konsidera
Penarik ez da bainan, ez naiz alegera
Zendako bada nauzu, ni bota hurera
Fede eskasez ama, hortaratu zera.

X

Ama, ibili zira, gaindiko plazetan
Alegia ta deus ez, lizunki dantzetan
Nitaz grignatu gabe, gogo-bihotzetan
Errespeturik gabe, zu esperantzetan.

XI

Galdua-galdu baita, ezin errepara
Permeti zazu nadin lañoki deklara
Haurrer argia kenduz-ta botaz hurera
Laster akabo daike, oi gaicho euskera

Eta erran zahar bat den bezala :
1r Les Paroles s'envolent mais les écrits restent », horrela ganza piza dezake eta ezaut iduri herrarik hartuko duen enetako. Hortakotz lañoki nere izena ezartzen dut.
Eskerrik-asko aintzinetik eta onhets-zkizu
Aita Lafitte Maitea ene bihotzetikako sendimenduzrik bizienak.

Mr Etchamendy Jean
118 rue de la Faisanderie
Paris 16^e

'Linbaetarik'

(segida .)

XII

Zorthe tchar bat dautazu hola eman eni
Bizi bat has-orduko, hoin trichteki fini
Erregret ez baduzu, ama kasu huni
Beldur izateko da, jaunak zaizan puni.

XIII

Ama hunkiko zaitu segur eue botzak
Zerbait sendi dezala, hor zure bihotzak.
Partekatuko tugu bien zorthe latzak.
Deshorea zure ta nik linbo hotzak.

XIV

Azken pertsua eta azken hitza "Ama"
Konsolamendu keta, jin naiz zure gana
Bainan hur handi horrek, krudelki nerama.
Plazer izpi bat gabe, linboetan barna.

Jean Etchamendy.

Aita Laffitte.

Huna zonbait bertsu, Ahatsan gerthatu zen izigarrikeria haren gainian. Neska gazte hori biziki untsa ezagutzen dut, hark ere bai ni. Bi gisetarat egin izan dut sujeta. Bat hauche da, bertsu audana hau. Bertzea aldiz arras amengiozkoa da. Badakit gazte kantariek azken hau nahioko zutela, nun nahi kantatzeko, usaya den bezala. Bainan hobe kausitzen dut, hauxkien igortzea, nahiz ez diren hanbatekoak zeren segur bainaiz, amagno trichte horrek irakurtuko ditzuela eta ber denboran bertze anhitz ama eta neska gaztek.

(Oseba) "Manech Etchamendy zenari"

Koblakako aire batean

1°)
Berri trichte bat jakinik nago, 'Ezterençuby' herritik
Kolpe berean nere bihotza ärtzaildu zelaut erditik
Gaicho "Oseba" beraz juan zira bethikotz gure artetik
Bainan begira, zaude ichtant bat othoi zeruko athetik.

2°)
Lau hogoi urthe ja iraganak, bertze zazpi gehiago.
Bainan "Oseba" zure oaltzea, sendatzen dut ezindago.
Zur'izalean, untsa baindizan, gaur aldiz umachurch nago
Nere arrazan, koblak'artzeko, norat so egin gorago.

3°)
Ez dut kusiko, nik gehiago, Oseba buru churia
Fede handiko gizon zintzoa eta zer pertsularia
Zu galdu eta berdin dolutan jarri da Euskal-Herria
Zaude distirant hedoi-artetik, gure izar gidaria

4°)
Sortuz geroztik denak munduan, zorthe bererat goatzi.
Zu atzo johan, bertze bat egun, ta ni bihar edo etzi
Bainan hatere, hil edo bizi, elgar sekulan ez utzi
Zeru gainetik, orhoit-zaitela ? 'eskuldunak ez ahantzi

5°/

Ehun bat urthe ibili zira grignan hartua ; euskera
Gure hizkuntza ez utzi nahiz malda tzarretan behera
Zuk hasi lanak, gusta dezenak, ditu urthetik urthera
Bainan oraino, lagunt gaitzazu bil gaitezen arthaldera

6°/

Hemen penatu zuen "Oseba" goza zezaken loria
Goiz edo beranduz, zer ganako nahiz nolz badare tenoria.
Ta amartian, izán zaitela euskaldun mandataria
Kuchitori erran, harentzat dela, bethiko Euskal-Herria.

7°/

